

KONTROL MOZIOA

Morlansen erretako etxeari buruzkoa

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzatan azter dadin. Mozioa 2021eko martxoaren 15ean Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2020ko ekainaren 26an pertsona bat Morlans auzoko etxe bateko garajearen gotortu zen eta sute bat eragin zuen. Antza denez, "osasun mentaleko arazoren bat" zuen gizonak garajearen su eman zion eta objektuak jaurti zituen. Azkenean, gizona atxilotu eta psikiatriko batera eraman zuten.

Bertako bizilagunek eta Morlanseko auzo elkarteak salatu duenez, erretako garajearen teilatuan amianto dago, horren arrastoak daude oraindik bertan iazko ekainetik eta haizeak jotzen duenean hautsak altxatzen ditu. Gainera, etxea jolas-parke baten ondoan dago.

Gainera, erretako garajearen gainean bizi diren jabeek azken aldirian osasunean arazoak pairatzen ari direla adierazi digute. Badirudi, amiantoaz gain, erraustu hondakinak direla osasun arazo horiek eragiten ari direnak.

Udalak jada izan du honen berri eta etxeko jabeek eskatu die amianto garbitzeko (isun bat ere helarazi zaie), baina etxeko jabeek oraindik ezin dute horrelakorik egin, ekaineko gertaera prozesu judizialean dagoelako.

Honi buruz martxoaren 15eko batzordeetan galdetuta, zinegotzi ordezkariak erantzun zuen jabeek izan dezaketela aukera amianto erretiratzeko, baina prozesu hori luzatuko balitz Udalak berak egin lezakeela lan hau subsidiarioki.

Hortaz, bertako bizilagunen eskaera da oraindik egoera lehenbailehen konpon dadila eta amianto erretiratzeko, bizilagunen osasuna bermatzeko; eta bien bitartean, erretako garajetik 5 m-ra gutxi gorabehera dagoen jolas-parkea eta ingurua lehenbailehen prezintatzea eta ixtea, eta arriskuaz ohartzeko duen seinalizazio egokia jartzea.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Bestalde egokia litzateke, osasuna bermatze aldera, airearen neurketak egitea zer arrisku dagoen jakiteko, azken finean bertako bizilagunek zortzi hilabete daramatzatelako errautsen hondakinak eta amiantoa arnasten.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Morlansen erretako garajearen amiantoa erretiratzeko subsidiarioki jardun dezala, prozedura judiziala argitu arte, duela zortzi hilabete hasitako egoera gehiago luzatu ez dadin.
- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari amiantoa erretiratu bitartean, Morlansen erretako garajetik gertu dagoen jolas-parkea eta ingurua era egokian prezintatu dezala eta arriskuaz ohartzen duen seinalizazio egokia jar dezala.
- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Morlansen erretako garajearen inguruko etxebizitzetako airearen neurketa egin dezala, bertako bizilagunen osasuna bermatua dagoela ziurtatzeko.

Donostian, 2021eko martxoaren 18an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego

EH BILDU udal taldeko zinegotzia